Astigarragako Udala
udala@astigarraga.eus

Espte. zk:	2023IKTZ0004

HARREMAN OSASUNTSUAK ETA PAREKIDEAK ERAIKITZEKO, DROGA-MENDEKOTASUNARI ETA INDARKERIA MATXISTARI BEGIRAKO PREBENTZIORAKO SENTSIBILIZAZIO-, FORMAKUNTZA- ETA AHOLKULARITZA

BALDINTZA TEKNIKOAK

1. KLAUSULA.- KONTRATUAREN XEDEA
2. KLAUSULA.- KONTRATUAREN LOTEAK
- **2.1. LEHENENGO LOTEA: Sexu eta harreman afektibo osasuntsuen informazio- eta aholkularitza-zerbitzua (herritarrei zuzenduta)**
  - **2.1.1. Lotearen xedea**
  - **2.1.2. Eskaini beharreko zerbitzua**
    - **2.1.2.1. Eginkizunak**
    - **2.1.2.2. Funtzionamendua eta koordinazioa Udalarekin**
    - **2.1.2.3. Antolamendua: zerbitzuaren egutegia eta ordutegia**
  - **2.1.3. Giza baliabideak**
  - **2.1.4. Baliabide materialak**
- **2.2. BIGARREN LOTEA: Indarkeria matxistarik gabeko gunea jai-giroan ("Karpa morea")**
  - **2.2.1. Lotearen xedea**
  - **2.2.2. Eskaini beharreko zerbitzua**
    - **2.2.2.1. Eginkizunak**
    - **2.2.2.2. Funtzionamendua eta koordinazioa Udalarekin**
    - **2.2.2.3. Antolamendua: zerbitzuaren egutegia eta ordutegia**
  - **2.2.3. Giza baliabideak**
  - **2.2.4. Baliabide materialak**
- **2.3. HIRUGARREN LOTEA: Harreman osasuntsuak eta parekideak eraikitzeko sentsibilizazio-, formakuntza- eta aholkularitza-zerbitzua (hezkuntza-komunitateari eta gainontzeko herriko eragileei zuzenduta)**
  - **2.3.1. Lotearen xedea**
  - **2.3.2. Eskaini beharreko zerbitzua**
    - **2.3.2.1. Eginkizunak**
    - **2.3.2.2. Funtzionamendua eta koordinazioa Udalarekin**
    - **2.3.2.3. Antolamendua: zerbitzuaren egutegia eta ordutegia**
  - **2.3.3. Giza baliabideak**
  - **2.3.4. Baliabide materialak**
- **2.4. LAUGARREN LOTEA: Ingurune digitalean jarrera eta harreman osasuntsu eta seguruak sustatzeko formakuntza-zerbitzua (hezkuntza komunitateari zuzenduta)**
  - **2.4.1. Lotearen xedea**
  - **2.4.2. Eskaini beharreko zerbitzua**

2.4.2.1. Eginkizunak
2.4.2.2. Funtzionamendua eta koordinazioa Udalarekin
2.4.2.3. Antolamendua: zerbitzuaren egutegia eta ordutegia
2.4.3. Giza baliabideak
2.4.4. Baliabide materialak
2.5. BOSGARREN LOTEA: Kontsumo arduratsua sustatzeko eta droga-mendekotasuna prebenitzeko formakuntza-zerbitzua (ikasleei zuzenduta)
2.5.1. Lotearen xedea
2.5.2. Eskaini beharreko zerbitzua
2.5.2.1. Eginkizunak
2.5.2.2. Funtzionamendua eta koordinazioa Udalarekin
2.5.2.3. Antolamendua: zerbitzuaren egutegia eta ordutegia
2.5.3. Giza baliabideak
2.5.4. Baliabide materialak

3. KLAUSULA.- HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK
4. KLAUSULA.- BERDINTASUN ARLOKO BALDINTZA BEREZIAK
5. KLAUSULA.- ESLEIPENDUNAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK

1. KLAUSULA.- KONTRATUAREN XEDEA

Astigarragan herritarren zein eragile ezberdinen artean eta baitan harreman osasuntsuak eta parekideak sustatzea eta droga-mendekotasuna eta jarrera matxistak prebenitzea.

Zehazki bost helbururi heldu nahi zaie, horregatik, bost lote hauek bereizi ditugu:

1. Sexu eta harreman afektibo osasuntsuen informazio- eta aholkularitza-zerbitzua (herritarrei zuzenduta).
2. Indarkeria matxistarik gabeko gune segurua jai-giroan ("Karpa morea").
3. Harreman osasuntsuak eta parekideak eraikitzeko sentsibilizazio-, formakuntza- eta aholkularitza-zerbitzua (hezkuntza komunitateari eta gainontzeko herriko eragileei zuzenduta).
4. Ingurune digitalean jarrera eta harreman osasuntsu eta seguruak sustatzeko formakuntza-zerbitzua (hezkuntza komunitateari zuzenduta).
5. Kontsumo arduratsua sustatzeko eta droga-mendekotasuna prebenitzeko formakuntza-zerbitzua (ikasleei zuzenduta).

2. KLAUSULA.- KONTRATUAREN LOTEAK

2.1. LEHENENGO LOTEA: Sexu eta harreman afektibo osasuntsuen informazio- eta aholkularitza-zerbitzua (herritarrei zuzenduta)

2.1.1. Lotearen xedea

Lehen lote honen xedea da sexu eta harreman afektibo osasuntsuak eraikitzeko tresnak eta baliabideak eskaintzea.

Honako gai eta arlo hauei buruzko informazio eta aholkularitza emango da:

- Kontaktu intimorako modu berriak ezagutu.
- Errutinatik atera. Zeure gorputza ezagutu.
- Orgasmoak sentitzen ikasi.
- Jeloskortasunak sortutako gatazka egoerei aurre egin.
- Aldizkako eta zehaztu gabeko bikote harremanak kudeatu.
- Menopausiak sortutako aldaketa eta gogo berriei erantzuna eman.
- Zure klitoria zein beste batena ezagutu eta plazerra ematen eta jasotzen ikasi.
- Seme-alaben jaiotzaren ostean, esperientzia erotikoak indarberritu.
- Isurketa egoeretan kontrol gehiago lortu. Erekzio gaitasuna suspertu. ·
- Bikote eztabaidak gutxitu. Zauriak sendatu.
- Sarketa ezberdinetan plazera sentitzera iritsi.
- Lagundutako ugalketa egoeran oreka erotikoa aurkitu.
- Ingurukoen aurrean zure identidate sexuala lasai plazaratzen ikasi.
- Erakargarritasuna handitu eta bikote harreman bat hasteko gai izan.
- Gaixotasun larri batekin edo ondoren erotismoa berreskuratu.
- Seme-alaben sexu-hezkuntzarako irizpideak jaso.

- Sentitutako sexua koherentziaz bizitzeko aliantzak eta baliabideak lortu.

Nolanahi ere den, gaien zerrenda hau ez da itxia eta Udaleko Berdintasun Sailak proposatutako beste edozein gairi buruzko informazioa eta aholkularitza emango da, beti ere, lotearen xedearekin lotutakoa bada. Gainera, esleipendunak zerrendan azaltzen ez den beste gairen bat proposatuz gero, Udalarekin adostu beharko du, gai horri buruzko aholkularitza eta informazioa eman ahal izateko.

2.1.2. Eskaini beharreko zerbitzua

2.1.2.1. Eginkizunak

Aipatutako gaiei buruzko aholkularitza pertsonalizatua eskaintzea. Zerbitzu hori doakoa izango da hartzaileentzat.

Informazio eta aholkularitza zerbitzu honen hartzaileak dira Astigarragako 16 urtetik gorako pertsonak, banaka, bikoteak nahiz familiak.

Bi modutara jaso ahal izango da zerbitzua: aurrez aurre edo bestelako bideak erabiliz (telefonoz, modu telematikoan…).

Aholkularitza pertsonalizatua aurrez aurre eskainiko da astean egun batean, 3 orduz (hilean, 12 orduz). Udalak zehaztuko du lekua, eguna eta ordutegia. Aurrez aurre artatzen diren kasuetan, lehen saioan datorren pertsona edo pertsonei datu pertsonalen babeserako orria betetzea eskatuko zaio eta kasu bakoitzari lotutako espediente bat egon beharko da eta datu hauek izango ditu espedienteak: diagnostiko labur bat, artatzearen helburuak eta hasierako ekintza-plan bat jasoko ditu.

Erabiltzaileek prozesua amaitzen dutenean, prozesuarekiko asebetetze-maila ezagutzeko, asebetetze-inkesta bat betearaziko zaie eta inkesta hori Udaleko Berdintasun Sailari pasako dio esleipendunak.

Aholkularitza pertsonalizatua bestelako bideak erabiliz (posta elektronikoa, telefonoa, bide telematikoak…): hilean guztira 4 ordu.

Interesa duten pertsonak zuzenean harremanetan jarriko dira zerbitzuarekin eta esleipendunak kudeatuko ditu hitzorduak eta agenda (lan hori zerbitzu-emate gisa ulertuko da eta ez da aparte fakturatuko).

2.1.2.2. Funtzionamendua eta koordinazioa Udalarekin

Zerbitzuaren jarraipena Udaleko Berdintasun Sailak egingo du.

Esleipendunak koordinazio-bilerak egingo ditu Udaleko Berdintasun Sailarekin, gutxienez hiru hilean behin. Edonola ere, Udalak beharrezko jotzen duenean bilerak egingo dira, bai eta eskatutako argibide eta datuak eman ere.

Esleipendunak Udaleko Berdintasun Sailari hiruhilero txostena bidaliko dio, aurreko hiru hilabeteetan eskainitako zerbitzuaren informazioa jasoz: erabiltzaileak, landutako gaiak, jazotako gorabeherak, erabiltzaileen asebetetze inkesten emaitzak, egindako orduak, zerbitzua eskaintzeko moldaketa edo egkitzapenen proposamenak… Hiruhilero aurkeztu beharreko txostenaren txantiloia ikasturte hasieran helaraziko dio Udalak esleipendunari.

Uztailean xehetasun handiagoko memoria bat eta ebaluazio sakonagoa egingo dira, gutxien-gutxienez honakoak adieraziz:

- Zerbitzua erabili duten pertsonen kopurua, banakatuta, adinaren, sexuaren eta abarren arabera.
- Zein bitarteko erabili duten (aurrez aurrekoa, telefonoa, facebook, e.a.).
- Galdera-mota, galdera beragatik zenbat aldiz joan diren.
- Zerbitzuari buruzko informazioa nola iritsi zaien.
- Zerbitzuaren alderdi hauei buruzko asebetetze-maila: tokia, ordutegia, e.a.
- Langileak eta eskainitako arreta dela eta, asebetetze-maila zenbaterainokoa den.
- Zerbitzua ezagutzera emateko egin diren jardueren deskribapena.
- Hobetzeko proposamenak.
- Aipatu ditugun alderdiei buruz enpresa esleipendunak egiten duen balorazioa

Udalarentzat egin beharreko txostenek eta memoriek sexu-aldagaia jaso beharko dute. Gainera, elektronikoki aurkeztu beharko dira bi ale, bat digitalki sinatuta eta bestea formatu erabilgarrian.

Koordinazio-lanetarako ez da aparteko ordurik aurreikusten.

Udala arduratuko da zerbitzuaren zabalkundea egiteaz.

2.1.2.3. Antolamendua: zerbitzuaren egutegia eta ordutegia

Zerbitzua lehen urtean kontratua esleitu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da martxan eta beste urteetan, berriz, irailaren 1etik aurrera. Zerbitzua eskainiko da irailaren 1etik ekainaren 30era, eta Gabonetan eta Aste Santuan hamabosna egunez ez da eskainiko.

Gehienez ere 15 egunez egon ahalko da zerbitzua etenda.

Aurreikusitako orduen antolamendua

Baldintza teknikoen “2.1.2.1. Eginkizunak” ataleko jarduera bakoitzerako ezarritako orduen aurreikuspena moldatu ahal izango dute lehiatzaileek beren eskaintzetan. Horrez gain, esleipendunak kontratatutako zerbitzuak garatzen ari dela moldaketak proposatu ahal izango ditu, zerbitzuaren beharrei hobeto erantzuteko. Nolanahi ere den, moldaketa horiek Udaleko Berdintasun Sailaren oniritzia jaso beharko dute egin aurretik.

2.1.3. Giza baliabideak

Zerbitzua emateko beharrezkoak diren giza baliabideak jarri beharko ditu esleipendunak.

Esleipendunak proposatutako langilea A kartazaleko zerbitzura atxikirik egongo da; ondorio guztietarako. Gainera, zerbitzua zuzenean eskainiko duen langileak (arreta zerbitzua, bai zuzenekoa, bai online modalitatekoa emango duena) baldintza administratiboen 14 klausulan lan-taldearentzako eskatzen den kaudimen baldintzak bete beharko ditu.

Esleipendunak Udalarekin dituen harreman guztiak (idatziz nahiz ahoz) euskaraz izango direnez, koordinatzaile lanetarako izendatzen den langileak Euskararen ezagutzako C1 egiaztagiria eduki behar du.

Bestetik, adingabeekin harreman zuzena izango duten langile guztiek ezin dira Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta egon.

2.1.4. Baliabide materialak

Udalak lokala eta oinarrizko ekipamendua jarriko ditu: altzariak, telefonoa, internet konexioa… Halaber, funtzionamenduko eta mantentze-lanetako gastuak (garbiketa, argindarra, telefonoa…) Udalaren kontura izango dira.

Zerbitzua eskaintzeko gainerako material guztiak esleipendunak jarriko ditu eta kontratuaren prezioan sartuta egongo dira.

2.2. BIGARREN LOTEA: Indarkeria matxistarik gabeko gunea jai-giroan ("Karpa morea")

2.2.1. Lotearen xedea

Lote honen xedea da jai-giroan indarkeria matxistari buruz sentsibilizatzea, indarkeria matxista kasuak ekiditea eta halako kasurik gertatuko balitz, biktimei gune seguru bat eskaintzea.

Horretarako jaietan indarkeria matxistarekiko dituzten bizipen, iritzi eta interesak jasotzea eta babes zein elkartasun gune izatea. Indarkeriari aurre egiteko bitartekoak eskaintzea. Erasotzaile izan daitezkeenei dena libre ez dela eta erasoak dauden kasuetan erantzuna izango dutela ohartarazteko gunea da, hala nola biktimek beren burua defendatzeko duten gaitasunaz jabetzen laguntzeko eta bitarteko eta lanabesak eskaintzeko.

2.2.2. Eskaini beharreko zerbitzua

2.2.2.1. Eginkizunak

Jai-giroan indarkeria matxistaren sentsibilizazio-, prebentzio- eta artatze-zerbitzua emateko gune segurua eskaintzea.

Udalaren karpa bat jarriko da zerbitzu hau eskaintzeko eta karpa hori kokatuko den tokia Udaleko Berdintasun Sailarekin adostuko da. Jai-giroan dabiltzan pertsonak konzentratzen diren tokia izango da, nahiz eta zarata gehiegi ez egotea komeni den erabiltzaileekin elkarrizketak ez oztopatzeko.

- Sentsibilizazioa eta prebentzio-zerbitzua: esleipenduna arduratuko da sentsibilizaziorako erabiliko duten materiala ekartzeaz (kartelak, eskuorriak, pegatinak...) eta erabiltzaileei banatzeaz.
- Artatzea-zerbitzua: erasoren baten berri emanez gero, lehen esku-hartzea egitea. Udaleko Berdintasun Sailak indarkeria kasuak artatzeko duten protokoloa helaraziko dio esleipendunari zerbitzua ematen hasi aurretik.

Zerbitzuaren erabiltzaileak 12 urtetik gorakoak izango dira eta bertan erabiliko den materiala eta zerbitzua adin hortatik goragako pertsonei egokitutakoa izango da. Erabiltzaileentzat zerbitzu hau doakoa izango da.

Udaleko Berdintasun Saila arduratuko da zerbitzuaren zabalkundea egiteaz eta argi utziko du erabiltzaileak 12 urtetik gorakoak izango direla eta karpa, non, zer data eta ordutegitan jarrita egongo den.

2.2.2.2. Funtzionamendua eta koordinazioa Udalarekin

Zerbitzuaren jarraipena Udaleko Berdintasun Sailak egingo du.

Herriko Santio jaiak eta Sagardo denboraldia hasi aurretik, esleipendunak koordinazio-bilera bana egingo du Udaleko Berdintasun Sailarekin zerbitzu-ematea koordinatzeko. Zerbitzua eskaini ondoren ere balorazio-bilera bana egingo du esleipendunak (Santio jaien ondoren eta Sagardo denboraldiaren amaieran).

Amaierako balorazio-bilera horien aurretik, zerbitzuaren balorazio-txostena elektronikoki bidaliko diote Udaleko Berdintasun Sailari, gutxien-gutxienez honakoak adieraziz:

- Zerbitzua erabili duten pertsonen kopurua, banakatuta, adinaren, sexuaren eta abarren arabera.
- Erabiltzaileek adierazitako kezkak, galderak, zalantzak eta eurekin landutako gai nagusiak.
- Enpresa esleipendunari aipagarria iruditu zaion edozein kontu.
- Hobetzeko proposamenak.
- Enpresa esleipendunak egiten duen balorazioa

Guztira, beraz, bi koordinazio-bilera, bi balorazio-txosten eta bi balorazio-bilera. Koordinazio-lanetarako ez da aparteko ordurik aurreikusten.

2.2.2.3. Antolamendua: zerbitzuaren egutegia eta ordutegia

Urtean bi sasoitan eskainiko da zerbitzu hau:

- Herriko Santio jaietan (uztailaren 25aren bueltan): 3 egunetan, gauez. Guztira, 15 ordu.
- Sagardo denboraldian (otsailetik martxoa bitartean): 5 larunbatetan, arratsaldez edo gauez, guztira, 20 ordu.

Data zehatzak Udaleko Berdintasun Sailak zehaztuko ditu.

Aurreikusitako orduen antolamendua

Baldintza teknikoen "2.2.2.1. Eginkizunak" ataleko jardueretako ezarritako orduen aurreikuspena moldatu ahal izango dute lehiatzaileek beren eskaintzetan. Horrez gain, esleipendunak kontratatutako zerbitzuak garatzen ari dela moldaketak proposatu ahal izango ditu, zerbitzuaren beharrei hobeto erantzuteko. Nolanahi ere den, moldaketa horiek Udaleko Berdintasun Sailaren oniritzia jaso beharko dute egin aurretik.

2.2.3. Giza baliabideak

Zerbitzua emateko beharrezkoak diren giza baliabideak jarri beharko ditu esleipendunak.

Esleipendunak proposatutako langilea A kartazaleko zerbitzura atxikirik egongo da; ondorio guztietarako. Gainera, zerbitzua zuzenean eskainiko duen langileak baldintza administratiboen 14 klausulan lan-taldearentzako eskatzen den kaudimen baldintzak bete beharko ditu.

Esleipendunak Udalarekin dituen harreman guztiak (idatziz nahiz ahoz) euskaraz izango direnez, koordinatzaile lanetarako izendatzen den langileak Euskararen ezagutzako C1 egiaztagiria eduki behar du.

Bestetik, adingabeekin harreman zuzena izango duten langile guztiek ezin dira Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta egon.

2.2.4. Baliabide materialak

Esleipendunak zerbitzua eman ahal izateko, Udalak honako baliabideak jarriko ditu: karpa, mahaia, aulkiak eta zerbitzua amaitu ostean material hori gordetzeko espazioa. Zerbitzua eskaintzeko gainerako material guztiak esleipendunak jarriko ditu eta kontratuaren prezioan sartuta egongo dira.

2.3. HIRUGARREN LOTEA: Harreman osasuntsuak eta parekideak eraikitzeko sentsibilizazio-, formakuntza- eta aholkularitza-zerbitzua (hezkuntza-komunitateari eta gainontzeko herriko eragileei zuzenduta)

2.3.1. Lotearen xedea

Harreman osasuntsuak eta parekideak sustatzea haur eta nerabeengan, guraso eta irakasleengan eta herriko gainerako eragileengan. Horretarako, berariaz hezkuntza-komunitateari eta Gaztelekuko erabiltzaile eta hezitzaileei zuzendutako formakuntza- eta aholkularitza-zerbitzua eta herriko eragileekin sentsibilizazio- eta formazio-ekintzak aurreikusten dira**.**

2.3.2. Eskaini beharreko zerbitzua

2.3.2.1. Eginkizunak

Hiru hartzaile-mota bereiztuko ditugu: hezkuntza-komunitatea, Gaztelekuko kideak eta herriko gainerako eragileak. Hartzaileei formakuntza- edota aholkularitza-saioak eskainiko zaizkie.

- **Hezkuntza-komunitatea:** ikasleek, tutoreek eta gurasoek osatzen dute multzo hau. Talde hauekin bi motatako gaiak landuko dira: batetik, berdinen arteko bizikidetza eta bestetik, harreman afektibo-sexualak. Bi ikastetxeetan izango lirateke esku-hartzeak: Astigarragako Herri Eskolan (Lehen Hezkuntza) eta Arantzazuko Ama institutuan (Bigarren Hezkuntza). Honako zerbitzuak aurreikusten dira:

  - **Berdinen arteko bizikidetza lantzeko formakuntza-saioak:**
    - Astigarragako Herri Eskolan:
      - Ikasleekin: Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako klaseetako ikasleekin (klase bakoitzarekin 6 ordu, 2 orduko 3 saiotan banatuta; 6 bat talde izaten dira; guztira, 36 ordu).
      - Tutoreekin: deboluzio-saio bat maila bakoitzeko tutoreekin (bina orduko 2 saio; guztira, 4 ordu)
      - Gurasoekin: deboluzio-saio bakarra (2 orduko saioa).
    - Arantzazuko Ama institutuan:
      - Ikasleekin: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako klaseetako ikasleekin (klase bakoitzarekin 6 ordu, 2 orduko 3 saiotan banatuta; 6 bat talde izaten dira; guztira, 36 ordu).
      - Tutoreekin: deboluzio-saio bat maila bakoitzeko tutoreekin (bina orduko 2 saio; guztira, 4 ordu).
      - Gurasoekin: deboluzio-saio bakarra (2 orduko saioa).

  - **Harreman afektibo-sexualak lantzeko formakuntza-saioak:**
    - Astigarragako Herri Eskolan:
      - Ikasleekin: Lehen Hezkuntzako 6. mailako klaseetako ikasleekin (klase bakoitzarekin 6 ordu, 2 orduko 3 saiotan banatuta; 3 bat talde izaten dira; guztira, 18 ordu).
      - Tutoreekin: deboluzio-saio bakarra (1,5 ordukoa)
      - Gurasoekin: deboluzio-saio bakarra (1,5 ordukoa).
    - Arantzazuko Ama institutuan:

- Ikasleekin: DBH 1. eta 3. mailetako geletako ikasleekin (klase bakoitzarekin 6 ordu, 2 orduko 3 saiotan banatuta; 6 bat talde izaten dira; guztira, 36 ordu).
- Tutoreekin: deboluzio-saio bat maila bakoitzeko tutoreekin (bina orduko 2 saio; guztira, 4 ordu).
- Gurasoekin: deboluzio-saio bakarra (2 ordukoa).

- **Berdinen arteko bizikidetza eta harreman afektibo-sexualei buruzko aholkularitza-saioak**: **Astigarragako Herri Eskolako tutoreei**. 1,5 orduko 5 saio egingo dira tutoreekin; guztira, 7,5 ordu. Enpresa esleipendunak saioen akta jasoko du eta saioan parte hartu duten irakasleei bidaliko die; Udalak akta horiek eskatzeko eskubidea izango du.

Oharra: **Hezkuntza-mailetako kopuruak 2022-2023 ikasturtekoak dira. Ikasturtez ikasturte, behin betiko datuekin osatuko da plangintza-proposamena eta horren arabera kontratu aldaketa bat bideratuko da** (plegu administratiboetan zehaztutakoari adierazitakoari jarraituz).

- **Gaztelekuko kideak**: Gaztelekuko erabiltzaileek (12-16 urte bitartekoak) eta Gaztelekuko hezitzaileek osatzen dute multzo hau. Talde honekin harreman afektibo-sexualak landuko dira honako zerbitzuen bitartez:
  - **Nerabeekin harreman afektibo-sexualei buruzko aholkularitza eta sentsibilizazioa**: zuzeneko arreta zerbitzua eskainita edo tailer eran. 2 orduko 5 saio, guztira, 10 ordu.
  - **Nerabeen zalantzei idatziz erantzutea**. Gaztelekuko hezitzaileek nerabeek gaiari buruz dituzten galderak jasoko dituzte eta enpresa esleipendunari helaraziko dizkiete. Esleipendunak galdera horien erantzunak idatziz bidaliko dizkiete hezitzaileei (nerabeen hizkuntza eta etapa ebolutiboa aintzat hartuta). Guztira, ikasturte osorako 8 ordu.
  - **Hezitzaileentzako aholkularitza**. 1,5 orduko 5 saio; guztira, 7,5 ordu.
  - **Hezitzaileentzako deboluzio-saioa**: Arantzazuko Ama institutuan ikasleekin egindako formakuntza-saioen deboluzioa (bai berdinen arteko bizikidetza lantzeko egindako saioena bai harreman afektibo-sexualak lantzeko saioena). 2 orduko saio bakarra.

- **Herriko gainerako eragileak**: Astigarragako Emakumeon Etxea, Xaguxar aisialdi-taldea, Gazte Asanblada, osasun-zentroa edo beste edozein eragile izango da multzo honen parte. Eragile horiei zuzendutako tailerrak, formakuntza- edo sentsibilizazio-ekintzak egingo dira. Guztira, 15 ordu.

Ezustekoengatik hartzaile-multzo batentzat aurreikusitako ordu-kopurua aldatzea erabaki dezake Udalak. Hala gertatuko balitz, lote honi egokitzen zaion ordu-kopuruaren guztizkoa mantenduko genuke eta hartzaile-multzo horren soberakina beste hartzaile-multzo bati egokitu ahalko zaio, beti ere, hartzailearekin eta enpresa esleipendunarekin adostu ostean. Era berean, hartzaile-multzo bati eskainiko zaizkion zerbitzuen artean ere ordu-

trasbaseak egon daitezke, Udalak hala erabakiko balu, betiere, hartzaileekin eta enpresa esleipendunarekin adostu ostean.

2.3.2.2. Funtzionamendua eta koordinazioa Udalarekin

Zerbitzuaren jarraipena elkarlanean egingo dute Udaleko Berdintasun Sailak eta Euskara eta Hezkuntza sailak. Aipatu zerbitzuetako teknikariek egingo dute enpresa esleipendunaren eta eragileen arteko bitartekari-lana eta beraiek izango dira bi aldeen solaskide zerbitzuen koordinaziorako.

Urtean, gutxienez, lau bilera egitea aurreikusten da:

Ikasturte hasieran (irailean) egingo da lehen bilera. Eta udal teknikariek luzatuko dute koordinaziorako deia: lehen bileran, ikasturteko plangintza adostuko da, hartzaile-multzo bakoitzean egingo diren ekintza, saio eta esku-hartzeak zehaztuz. Ondoren, enpresa esleidunak eragileekin data eta ordutegi zehatzak adostuko ditu. Aurrera egiteko, ezinbestekoa izango da egutegi eta ordutegi zehatzen gaineko udal teknikarien oniritzia.

Bigarren bilera lehen hiruhilekoaren amaieran egingo da (abenduan edo urtarrilean) eta hirugarren bilera bigarren hiruhilekoaren amaieran egingo da (martxoan edo apirilean); biak ordura arte egindakoei buruzko balorazioa eta jarraipena egiteko lan-saioak izango dira. Laugarren eta azken bilera ikasturte amaieran egingo da (ekainean), eskainitako zerbitzuen inguruko balorazio orokorra egiteko asmoz.

Esleipendunak Udaleko Berdintasun Sailari hiruhilero txostena bidaliko dio, aurreko hiru hilabeteetan eskainitako zerbitzuaren informazioa jasoz: erabiltzaileak, landutako gaiak, jazotako gorabeherak, erabiltzaileen asebetetze inkesten emaitzak, egindako orduak, zerbitzua eskaintzeko moldaketa edo egkitzapenen proposamenak…

Bestalde, hilero, egindako orduen taula bidaliko dio Udaleko Berdintasun Sailari. Hilero eta hiru hilean behin aurkeztu beharreko txostenen txantiloiak ikasturte hasieran helaraziko dizkio Udalak esleipendunari.

Uztailean xehetasun handiagoko memoria bat eta ebaluazio sakonagoa egingo dira, gutxien-gutxienez honakoak adieraziz:

- Zerbitzua erabili duten pertsonen kopurua, banakatuta, adinaren, sexuaren eta abarren arabera.
- Galdera-mota, galdera beragatik zenbat aldiz joan diren.
- Zerbitzuari buruzko informazioa nola iritsi zaien.
- Zerbitzuaren alderdi hauei buruzko asebetetze-maila: tokia, ordutegia, e.a.
- Hobetzeko proposamenak.
- Aipatu ditugun alderdiei buruz enpresa esleipendunak egiten duen balorazioa.

Udalarentzat egin beharreko txostenek eta memoriek sexu-aldagaia jaso beharko dute. Gainera, elektronikoki aurkeztu beharko dira bi ale, bat digitalki sinatuta eta bestea formatu erabilgarrian.

Koordinazio-lanetarako ez da aparteko ordurik aurreikusten.

Udala arduratuko da eskainitako zerbitzuen zabalkundea egiteaz.

2.3.2.3. Antolamendua: zerbitzuaren egutegia eta ordutegia

Hezkuntza-komunitateari zuzendutako ekintzak ikasturtean zehar egingo dira (lehen urtean kontratua esleitu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da martxan eta beste urteetan, berriz, irailaren 1etik aurrera) eta ikasturte hasieran adostuko dira ikastetxearekin (irailean). Zerbitzua eskainiko da irailaren 1etik ekainaren 30era, eta Gabonetan eta Aste Santuan hamabosna egunez ez da eskainiko. Astigarragako Herri Eskolako tutoreei emango zaizkien aholkularitza-saioak formakuntza-saioak jaso ondoren egingo dira eta ikasturtea amaitu bitartean. Tutoreekin 1,5 orduko 5 saio egitea aurreikusten dira epe hauetan: urtarrilean, otsailean, martxoan, apirilean eta maiatzean.

Gaztelekuko kideentzako ekintzak ikasturtean zehar egingo dira (lehen urtean kontratua esleitu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da martxan eta beste urteetan, berriz, irailaren 1etik aurrera). Zerbitzua eskainiko da irailaren 1etik ekainaren 30era, eta Gabonetan eta Aste Santuan hamabosna egunez ez da eskainiko:

- **Nerabeekin harreman afektibo-sexualei buruzko aholkularitza eta sentsibilizazioa**: 5 saio (urrian, azaroan, urtarrilean, martxoan eta maiatzean).
- **Nerabeen zalantzei idatziz erantzutea**: hilean ordubete inguru ikasturte osoan zehar.
- **Hezitzaileentzako aholkularitza**. 5 saio (urrian, abendua hasieran, otsailaren hasieran, martxoan edo apirilean eta ekainean).
- **Hezitzaileentzako deboluzio-saioa**: Arantzazuko Ama institutuan ikasleekin, tutoreekin eta gurasoekin formakuntza-saioak egin ondoren burutuko da 2 orduko deboluzio-saio hau.

Herriko gainerako eragileekin eskainiko diren zerbitzuen egutegia eta ordutegia, ikasturte hasieran adostu beharko du Udaleko Berdintasun Sailak enpresa esleipendunarekin.

Aurreikusitako orduen antolamendua

Baldintza teknikoen “2.3.2.1. Eginkizunak” ataleko jarduera bakoitzerako ezarritako orduen aurreikuspena moldatu ahal izango dute lehiatzaileek beren eskaintzetan. Horrez gain, esleipendunak kontratatutako zerbitzuak garatzen ari dela moldaketak proposatu ahal izango ditu, zerbitzuaren beharrei hobeto erantzuteko. Nolanahi ere den, moldaketa horiek Udaleko Berdintasun Sailaren oniritzia jaso beharko dute egin aurretik.

2.3.3. Giza baliabideak

Zerbitzua emateko beharrezkoak diren giza baliabideak jarri beharko ditu esleipendunak.

Esleipendunak proposatutako langilea A kartazaleko zerbitzura atxikirik egongo da; ondorio guztietarako. Gainera, zerbitzua zuzenean eskainiko duen langileak baldintza administratiboen 14 klausulan lan-taldearentzako eskatzen den kaudimen baldintzak bete beharko ditu.

D ereduan irakasten da Astigarragako Herri Eskolan eta Arantzazuko Ama BHI ikastetxean; alegia, euskara da hezkuntza-hizkuntza nagusia. Hala, bi ikastetxeen hizkuntza irizpideak kontuan hartuta, zerbitzua eskaintzerakoan, bere jarduna euskaraz bideratu beharko dute enpresa esleipendunak izendatutako langileek. Horregatik, euskararen C1 mailako euskara egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

Esleipendunak Udalarekin dituen harreman guztiak (idatziz nahiz ahoz) euskaraz izango direnez, koordinatzaile lanetarako izendatzen den langileak Euskararen ezagutzako C1 egiaztagiria eduki behar du.

Bestetik, adingabeekin harreman zuzena izango duten langile guztiek ezin dira Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta egon.

2.3.4. Baliabide materialak

Esleipendunak emango dituen formakuntza- edo aholkularitza-saioak eragileen eraikinetan ez egitea erabakiko balu Udalak dagokion eragilearekin batera, Udalak saio horiek egiteko lokala eta oinarrizko ekipamendua jarriko luke: altzariak, internet konexioa, ordenagailua, proiektorea, eta abar.

Zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren gainontzeko material guztiak esleipendunak jarriko ditu eta kontratuaren prezioan sartuta egongo dira.

2.4. LAUGARREN LOTEA: Ingurune digitalean jarrera eta harreman osasuntsu eta seguruak sustatzeko formakuntza-zerbitzua (hezkuntza komunitateari zuzenduta)

Esparru digitala nagusituz doa egunerokoan. Hezkuntzan, aisialdian edota lanean, sozializatzeko nahiz mota askotako jardueretarako, geroz eta ohikoagoak bihurtu dira gailu eta harreman digitalak. Testuinguru horretan, gazteen, nerabeen nahiz haurrentzat, ingurune digitala beraien harreman-gune naturala da.

Bada, ezinbestekoa da ingurune digitalean (ere) jarrera eta harreman osasuntsuak eta seguruak sustatzeko neurriak hartzea; bai, behintzat, egiaz etorkizuneko belaunaldiak giza- balioetan hezi eta jendarte justu, parekide eta osasuntsuago bat eraikiko bada.

Izatez, etengabe aldatuz doan eremua da ingurune digitala. Erronka berriak identifikatu ahala, garai berrietara egokitu eta moldatu beharko da esku-hartzea, baina funtsean,

gizartearen osasun digitala bermatzeko erabilera eta praktika egokiak sustatzea izango du helburu formakuntza-zerbitzuak.

2.4.1. Lotearen xedea

Kontratuaren baitako zerbitzu-atal honen xede zuzena da ingurune digitalaren esparruan Astigarragako hezkuntza-komunitateari, berariaz, formazio eta esku-hartzea zerbitzua eskaintzea. Funtsean, gailu digitalen erabilera egokia eta praktika onak sustatzetik, harreman osasuntsuak eta seguruak bermatzeko neurriak hartzeko esku-hartzea du helburu zerbitzu-kontratuak.

Astigarragako Herri Eskolako eta Arantzazuko Ama BHI ikastetxeko ikasleei, irakasleei eta gurasoei zuzendutako formakuntza eta aholkularitza zerbitzuaren baitan, gatazka eta jazarpen digitalari dagokion prebentzio eta sentsibilizazio lana egingo da eta ingurune digitalean hartu-eman osasuntsuak eta seguruak eraikitzeko baliabideak eskainiko dira.

2.4.2. Eskaini beharreko zerbitzua

2.4.2.1. Eginkizunak

Aholkularitza eta formakuntza-zerbitzuak Astigarragako Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako eta Arantzazuko Ama BHI ikastetxeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak ditu jomugan. Halaber, hezkuntza-komunitate osoan eragiteko asmoz, gurasoei nahiz ikastetxeetako profesionalei (irakasle, hezitzaile, aholkulari, orientatzaile...) bideratutako aholkularitza saioak eskainiko zaizkie.

Edozein kasutan, mailaz maila eta gizartearen bilakeraren arabera eskaintza egokitzeko malgutasunarekin, ondorengoak izango dira heziketa digitalaren baitan jorratu beharreko ardatzak:

- Sare sozialak: babes, segurtasun eta pribatutasun ezarpenak.
- Gatazkak, jazarpen digitala eta grooming-a: delituak eta ondorioak.
- Sexting-a: prebentzioa, arriskuak eta ondorioak.
- Zibersegurtasuna: segurtasuna, praktika onak eta krisi-kudeaketa.
- Sare sozialen neurrizko erabilera vs gehiegizko erabilera. Buru-osasuna eta mendekotasuna.
- ...

- **Ingurune digitalean jarrera eta harreman osasuntsuak eta seguruak sustatzeko ikasleentzako formakuntza-saioak:**

  - Astigarragako Herri Eskolan:
    - Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako geletako ikasleekin.

- LH4 eta LH6 arteko maila bakoitzeko 3 gela daude; gutxienez, ordubeteko saio bana eskainiko da gela bakoizean.
  - Oharra: Proposamen pedagogikoaren mesedetan, mailaren batean, estrategikoki, esku-hartzea bikoiztea edo indartzea hobetsiko da (saio gehiago eskainiz, bestelako tailer edo ekimenen bat planteatuz...)
  - Guztira, 9 eta 15 ordu bitartean.

- Arantzazuko Ama BHI ikastetxean:
  - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailako geletako ikasleekin.
    - DBH 1.mailan 4 gela daude eta DBH 2, 3 eta 4 mailetan, berriz, mailako 3 gela. Maila bakoitzeko, gutxienez, bi orduko saio bana eskainiko da gela bakoitzean.
      - Oharra: Proposamen pedagogikoaren mesedetan, mailaren batean, estrategikoki, esku-hartzea indartzea baloratuko da.
      - Guztira, 26 ordu, gutxienez.

- **Ingurune digitalean jarrera eta harreman osasuntsuak eta seguruak sustatzeko hezkuntzako profesionalentzako nahiz gurasoentzako aholkularitza-saioak:**

  - Astigarragako Herri Eskolan:
    - Aurre-saioa: LHko guraso guztientzat irekia izango den kontzientziazio saioa. Ikasleek beren lehenengo saioa jaso aurretik egingo da. Ordubeteko saioa izango da
    - Itxiera saioak: LH4, LH5 eta LH6 mailetako ikasleen gurasoentzat, ikasleek beren saioak jaso ondoren. Ordubeteko saio bakarra izango da.

  - Arantzazuko Ama BHI ikastetxean:
    - Itxiera saioak: Ikasleekin egindako saioen ostean, esku-hartzeari amaiera emateko saioak izango dira; izan gurasoei begirakoak nahiz ikastetxeko hezkuntzako profesionalei begirakoak, ikasleekin jorratutakoak partekatzeko antolatuko dira. Guztira, 2 ordu.

Oharra: **Hezkuntza-mailetako kopuruak 2022-2023 ikasturtekoak dira. Ikasturtez ikasturte, behin betiko datuekin osatuko da plangintza-proposamena eta horren arabera kontratu aldaketa bat bideratuko da** (plegu administratiboetan zehaztutakoari jarraituz).

Ezustekoengatik hartzaile-multzo batentzat aurreikusitako ordu-kopurua aldatzea erabaki dezake Udalak. Hala gertatuko balitz, lote honi egokitzen zaion ordu-kopuruaren guztizkoa mantenduko genuke eta hartzaile-multzo horren soberakina beste hartzaile-multzo bati egokitu ahalko zaio; beti ere, hartzailearekin eta enpresa esleipendunarekin adostu ostean. Era berean, hartzaile-multzo bati eskainiko zaizkion zerbitzuen artean ere ordu-

aldaketak egon daitezke, Udalak hala erabakiko balu, betiere, hartzaileekin eta enpresa esleipendunarekin adostu ostean.

2.4.2.2. Funtzionamendua eta koordinazioa Udalarekin

Zerbitzuaren jarraipena elkarlanean egingo dute Udaleko Berdintasun Sailak eta Euskara eta Hezkuntza sailak. Aipatu zerbitzuetako teknikariek egingo dute enpresa esleipendunaren eta eragileen arteko bitartekari-lana eta beraiek izango dira bi aldeen solaskide zerbitzuen koordinaziorako.

Urtean, gutxienez, lau bilera egitea aurreikusten da:

Ikasturte hasieran (irailean) egingo da lehen bilera. Eta udal teknikariek luzatuko dute koordinaziorako deia: lehen bileran, ikasturteko plangintza adostuko da, hartzaile-multzo bakoitzean egingo diren ekintza, saio eta esku-hartzeak zehaztuz. Ondoren, enpresa esleipendunak eragileekin data eta ordutegi zehatzak adostuko ditu. Aurrera egiteko, ezinbestekoa izango da egutegi eta ordutegi zehatzen gaineko udal teknikarien oniritzia.

Bigarren bilera lehen hiruhilekoaren amaieran egingo da (abenduan edo urtarrilean) eta hirugarren bilera bigarren hiruhilekoaren amaieran egingo da (martxoan edo apirilean); biak ordura arte egindakoei buruzko balorazioa eta jarraipena egiteko lan-saioak izango dira. Laugarren eta azken bilera ikasturte amaieran egingo da (ekainean), eskainitako zerbitzuen inguruko balorazio orokorra egiteko asmoz. Azken balorazio saioaren aurretik, egindako lanei buruzko memoria aurkeztuko dio esleipendunak Udalari: gutxienez, honakoak adieraziz:

1. Eskainitako zerbitzuari buruzko datuak: hasierako propsoamena eta plangintzaren betetze maila, egutegiak eta ordutegiak, erabilitako giza baliabideak, bestelako baliabideak...

2. Ekintzei buruz hartzaile-multzoek egindako balorazioa (galdetegi edota bestelakoen bitartez jaso beharko da asebetetze-maila).

3. Koordinazioari buruzko enpesa esleipendunaren balorazioa.

4. Zerbitzua hobetzeko proposamena.

Edozein kasutan, Udalak beharrezkoa dela iritziz gero, ikasturte osoan zehar egingo dira bilerak; koordinazio-lanak bideratu edota eskatutako argibide eta datuak emateko.

Udalarentzat egin beharreko txostenek eta memoriek sexu-aldagaia jaso beharko dute. Gainera, elektronikoki aurkeztu beharko dira bi ale, bat digitalki sinatuta eta bestea formatu erabilgarrian.

Koordinazio-lanetarako ez da aparteko ordurik aurreikusten.

Udala arduratuko da eskainitako zerbitzuen komunikazioa edo zabalkundea egiteaz; **alabaina, enpresa esleipendunari dagokio komunikazio euskarrietararako informazio zuzena, garaiz, udalari helaraztea.**

2.4.2.3. Antolamendua: zerbitzuaren egutegia eta ordutegia

Ikasturte hasieran egingo den bileran (irailean) ikasturteko plangintza adostuko da, hartzaile-multzo bakoitzean egingo diren ekintza, saio eta esku-hartzeak zehaztuz.

Aurreikusitako orduen antolamendua

Baldintza teknikoen “2.4.2.1. Eginkizunak” ataleko jarduera bakoitzerako ezarritako orduen aurreikuspena moldatu ahal izango dute lehiatzaileek beren eskaintzetan. Horrez gain, esleipendunak, kontratatutako zerbitzuak garatzen ari dela, moldaketak proposatu ahal izango ditu, zerbitzuaren beharrei hobeto erantzuteko. Nolanahi ere den, moldaketa horiek Udaleko Berdintasun Sailaren eta Euskara eta Hezkuntza sailaren oniritzia jaso beharko dute egin aurretik.

2.4.3. Giza baliabideak

Zerbitzua emateko beharrezkoak diren giza baliabideak jarri beharko ditu esleipendunak.

Esleipendunak proposatutako langilea A kartazaleko zerbitzura atxikirik egongo da; ondorio guztietarako. Gainera, zerbitzua zuzenean eskainiko duen langileak baldintza administratiboen 14 klausulan lan-taldearentzako eskatzen den kaudimen baldintzak bete beharko ditu.

D ereduan irakasten da Astigarragako Herri Eskolan eta Arantzazuko Ama BHI ikastetxean; alegia, euskara da hezkuntza-hizkuntza nagusia. Hala, bi ikastetxeen hizkuntza irizpideak kontuan hartuta, zerbitzua eskaintzerakoan, bere jarduna euskaraz bideratu beharko dute enpresa esleipendunak izendatutako langileek. Horregatik, euskararen C1 mailako euskara egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

Halaber, esleipendunak Udalarekin dituen harreman guztiak (idatziz nahiz ahoz) euskaraz izango direnez, koordinatzaile lanetarako izendatzen den langileek ere, C1 mailako euskara egiaztagiria izan beharko dute.

Bestetik, adingabeekin harreman zuzena izango duten langile guztiek ezin dira Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta egon.

2.4.4. Baliabide materialak

Udalak, dagokion eragilearekin batera, esleipendunak emango dituen formakuntza- edo aholkularitza-saioak eragileen eraikinetan ez egitea erabakiko balu, Udalak saio horiek egiteko lokala eta oinarrizko ekipamendua jarriko luke: altzariak, internet konexioa, ordenagailua, proiektorea, eta abar.

Zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren gainontzeko material guztiak esleipendunak jarriko ditu eta kontratuaren prezioan sartuta egongo dira.

2.5. BOSGARREN LOTEA: Kontsumo arduratsua sustatzeko eta droga-mendekotasuna prebenitzeko formakuntza-zerbitzua (ikasleei zuzenduta)

Hazkunde fisiko azkarraz gain, nabarmenak dira nerabezaroan ematen diren aldaketa psikologikoak. Garapen fisiko eta psikologikoaz gain, garapen kognitibo azkarraren garaia ere bada nerabezaroa.

Norbanako gehienentzat nerabezaroan hasten da identitate-bilaketa. Ez da zeregin erraza izaten eta nerabearen inguruneak sekulako inportantzia izan ohi du nortasunaren garapenean. Izan ere, nerabe baten gizarte-garapenean funtsezkoak dira lagunekin, bikotekideekin, senideekin edota bestelako gizarte-esparruko kideekin eraikitzen dituzten harremanak.

Testuinguru horretan, aldi kritikoa da nerabezaroa. Jendarteak inposatutako rol estereotipatuek dakartzaten ondoezak, norbere ahulguneak estali nahiak edota ezinegonei erantzuteko gaitasun eskasak jokabide aldaketak eta gatazkak sorrarazi ditzake.

Aldaketa-garai horretan, ohikoa izan liteke alkohola, tabakoa, kalamua, antsiolitikoak eta bestelako sustantziak kontsumitzen hastea. Dela estresari edota antsietateari erantzuteko, dela gizarteko moldeetatik ihes egiteko, edota, besterik gabe, aske sentitzeko, nagusi sentitu nahi izateko edota talde baten parte izateko. Esate baterako, antsiolitikoen kontsumoak gorakada izan du nerabeetan eta genero-arrakala begibistakoa da, emakumezkoen kontsumoa handiagoa baita.

Arrazoiak arrazoi, drogen gehiegizko kontsumoak berarekin dakartza portaera ez osasuntsuak. Eta sustantzia bakoitzak bere ondorio espezifikoak baditu ere, guzti-guztiek eragiten dute fisikoki, psikologikoki eta sozialki: mendekotasuna sortzeaz gain, ohikoak bihurtzen dira suminkortasuna edota umore-aldaketak, baita inguru hurbilarekin gatazka eta eztabaidak ere. Horrez gain, gero eta normalizatuagoa dago eguneroko arazoei aurre egiteko drogak kontsumitzea eta horrek desahaldundu egiten gaitu, alegia, gaitasuna galtzen dugu beste estrategia batzuen bidez erantzuteko arazo horiei; hala nola, baliabide eta sare komunitarioetara jotzea, edo familiara, adibidez.

Kontsumo-joera eragile sozialei hain lotuta dagoenez, konponbideek ere ezinbestean izan behar dute alderdi soziala. Ezinbestekoa da nerabeei babes-faktoreak eskaintzea: informazioa eskura jarri, autoestimua sustatu, aisialdiko aukerak eman eta erabaki autonomoak eta portaera osasungarriak hartzeko trebetasun sozial egokietan heztea. Alegia, kontsumoaren aurrean, taldeko dinamikez eta inertziaz haratago, ezinbestekoa da

nerabeek hautu pertsonal propioak egiteko kontzientzia hartzea: hots, nork bere burua errespetatzetik eta maitatzetik abiatzea besteekiko harreman osasuntsuak.

2.5.1. Lotearen xedea

Arantzazuko Ama BHI ikastetxeko 3. eta 4.mailako ikasleei zuzendutako formakuntza eta aholkularitza zerbitzuaren baitan, droga-mendekotasuna prebenitzeko eta kontsumo arduratsua sustatzeko sentsibilizazio lana egingo da eta hartu-eman osasuntsuak eta seguruak eraikitzeko baliabideak eskainiko dira. Horixe da kontratuaren baitako azken zerbitzu-zati honen xede zuzena.

2.5.2. Eskaini beharreko zerbitzua

2.5.2.1. Eginkizunak

Aholkularitza eta formakuntza-zerbitzuak Arantzazuko Ama BHI ikastetxeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak ditu jomugan. Halaber, hezkuntza-komunitate osoan eragiteko asmoz, ikastetxeetako profesionalei (irakasle, hezitzaile, aholkulari, orientatzaile...) itxiera-saioak eskainiko zaizkie.

- **Kontsumo arduratsua sustatzeko eta droga-mendekotasuna prebenitzeko ikasleentzako formakuntza-saioak:**

  - Arantzazuko Ama BHI ikastetxean:
    - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako geletako ikasleekin.
      - DBH 3. eta 4.mailan 3 gela daude, mailako. Maila bakoitzeko, gutxienez, bi orduko saio bana eskainiko da gela bakoitzean.
        - Oharra: Proposamen pedagogikoaren mesedetan, mailaren batean, estrategikoki, esku-hartzea indartzea baloratuko da.
        - Guztira, 12 ordu, gutxienez.

- **Kontsumo arduratsua sustatzeko eta droga-mendekotasuna prebenitzeko hezkuntzako profesionalentzako aholkularitza-saioak:**

  - Arantzazuko Ama BHI ikastetxean:
    - <u>Itxiera saioak:</u> Ikasleekin egindako saioen arabera, esku-hartzeari amaiera emateko saioak izango dira, ikastetxeko hezkuntzako profesionalei zuzendutakoak.
    - Maila bakoitzeko ordubeteko saio bana egingo da, gutxienez. Guztira, 2 ordu.

Oharra: **Hezkuntza-mailetako kopuruak 2022-2023 ikasturtekoak dira. Ikasturtez ikasturte, behin betiko datuekin osatuko da plangintza-proposamena eta horren arabera kontratu aldaketa bat bideratuko da** (plegu administratiboetan zehaztutakoari jarraituz).

Ezustekoengatik hartzaile-multzo batentzat aurreikusitako ordu-kopurua aldatzea erabaki dezake Udalak. Hala gertatuko balitz, lote honi egokitzen zaion ordu-kopuruaren guztizkoa mantenduko genuke eta hartzaile-multzo horren soberakina beste hartzaile-multzo bati egokitu ahalko zaio, beti ere, hartzailearekin eta enpresa esleipendunarekin adostu ostean. Era berean, hartzaile-multzo bati eskainiko zaizkion zerbitzuen artean ere ordu-aldaketak egon daitezke, Udalak hala erabakiko balu, betiere, hartzaileekin eta enpresa esleipendunarekin adostu ostean.

2.5.2.2. Funtzionamendua eta koordinazioa Udalarekin

Zerbitzuaren jarraipena elkarlanean egingo dute Udaleko Berdintasun Sailak eta Euskara eta Hezkuntza sailak. Aipatu zerbitzuetako teknikariek egingo dute enpresa esleipendunaren eta eragileen arteko bitartekari-lana eta beraiek izango dira bi aldeen solaskide zerbitzuen koordinaziorako.

Urtean, gutxienez, bi bilera egitea aurreikusten da:

Ikasturteko bigarren hiruhilekoan (otsailean-martxoan) egingo da lehen bilera. Eta udal teknikariek luzatuko dute koordinaziorako deia: lehen bileran, saioen plangintza adostuko da, hartzaile-multzo bakoitzean egingo diren ekintza, saio eta esku-hartzeak zehaztuz. Ondoren, enpresa esleipendunak eragileekin data eta ordutegi zehatzak adostuko ditu. Aurrera egiteko, ezinbestekoa izango da egutegi eta ordutegi zehatzen gaineko udal teknikarien oniritzia.

Bigarren bilera ikasturte amaieran egingo da (ekainean), eskainitako zerbitzuen inguruko balorazio orokorra egiteko asmoz. Azken balorazio saioaren aurretik, egindako lanei buruzko memoria aurkeztuko dio esleipendunak Udalari: gutxienez, honakoak adieraziz:

1. Eskainitako zerbitzuari buruzko datuak: hasierako proposamena eta plangintzaren betetze maila, egutegiak eta ordutegiak, erabilitako giza baliabideak, bestelako baliabideak...

2. Ekintzei buruz hartzaile-multzoek egindako balorazioa (galdetegi edota bestelakoen bitartez jaso beharko da asebetetze-maila).

3. Koordinazioari buruzko enpresa esleipendunaren balorazioa.

4. Zerbitzua hobetzeko proposamena.

Edozein kasutan, Udalak beharrezkoa dela iritziz gero, ikasturte osoan zehar egingo dira bilerak; koordinazio-lanak bideratu edota eskatutako argibide eta datuak emateko.

Udalarentzat egin beharreko txostenek eta memoriek sexu-aldagaia jaso beharko dute. Gainera, elektronikoki aurkeztu beharko dira bi ale, bat digitalki sinatuta eta bestea formatu erabilgarrian.

Koordinazio-lanetarako ez da aparteko ordurik aurreikusten.

Udala arduratuko da eskainitako zerbitzuen komunikazioa edo zabalkundea egiteaz; **alabaina, enpresa esleipendunari dagokio komunikazio euskarrietararako informazio zuzena, garaiz, udalari helaraztea.**

2.5.2.3. Antolamendua: zerbitzuaren egutegia eta ordutegia

Ikasturteko bigarren hiruhilekoan (otsailean-martxoan) egingo den bileran saioen plangintza adostuko da, hartzaile-multzo bakoitzean egingo diren ekintza, saio eta esku-hartzeak zehaztuz.

Aurreikusitako orduen antolamendua

Baldintza teknikoen “2.5.2.1. Eginkizunak” ataleko jarduera bakoitzerako ezarritako orduen aurreikuspena moldatu ahal izango dute lehiatzaileek beren eskaintzetan. Horrez gain, esleipendunak kontratatutako zerbitzuak garatzen ari dela moldaketak proposatu ahal izango ditu, zerbitzuaren beharrei hobeto erantzuteko. Nolanahi ere den, moldaketa horiek Udaleko Berdintasun Sailaren eta Euskara eta Hezkuntza sailaren oniritzia jaso beharko dute egin aurretik.

2.5.3. Giza baliabideak

Zerbitzua emateko beharrezkoak diren giza baliabideak jarri beharko ditu esleipendunak.

Esleipendunak proposatutako langilea A kartazaleko zerbitzura atxikirik egongo da; ondorio guztietarako. Gainera, zerbitzua zuzenean eskainiko duen langileak baldintza administratiboen 14 klausulan lan-taldearentzako eskatzen den kaudimen baldintzak bete beharko ditu.

D ereduan irakasten da Arantzazuko Ama BHI ikastetxean; alegia, euskara da hezkuntza-hizkuntza nagusia. Hala, ikastetxearen hizkuntza irizpideak kontuan hartuta, zerbitzua eskaintzerakoan, bere jarduna euskaraz bideratu beharko dute enpresa esleipendunak izendatutako langileek. Horregatik, euskararen C1 mailako euskara egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

Halaber, esleipendunak Udalarekin dituen harreman guztiak (idatziz nahiz ahoz) euskaraz izango direnez, koordinatzaile lanetarako izendatzen den langileek ere, C1 mailako euskara egiaztagiria izan beharko dute.

Bestetik, adingabeekin harreman zuzena izango duten langile guztiek ezin dira Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta egon.

2.5.4. Baliabide materialak

Udalak, dagokion eragilearekin batera, esleipendunak emango dituen formakuntza- edo aholkularitza-saioak eragileen eraikinetan ez egitea erabakiko balu, Udalak saio horiek egiteko lokala eta oinarrizko ekipamendua jarriko luke: altzariak, internet konexioa, ordenagailua, proiektorea, eta abar.

Zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren gainontzeko material guztiak esleipendunak jarriko ditu eta kontratuaren prezioan sartuta egongo dira.

3. KLAUSULA.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarria eta, besteak beste, Udalaren barne erabilera plantean eta bestelako arauetan erregulatua.

Halaber, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak arautzen dituen herritarren hizkuntza eskubideak bermatu beharko dira.

Baldintza agiriotan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera dute Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu.

Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 62.artikuluari jarraiki, kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntza araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan: bai ahozkoetan, bai idatzizkoetan; eta, beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen eraboilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuaren III. Kapituluan zehatutako aukerari jarraiki.

D ereduan irakasten da bai Astigarragako Herri Eskolan, baita Arantzazuko Ama BHI-n ere; alegia, euskara da hezkuntza-hizkuntza nagusia bi ikastetxeetan. Hala, eskolaren hizkuntza irizpideak kontuan hartuta, zerbitzua eskaintzerakoan, bere jarduna euskaraz bideratu beharko dute enpresa esleipendunak izendatutako langileek.

Beraz, zerbitzu-kontratu honetan hizkuntza irizpide hauek bete beharko dira: alde batetik, formazio saioetarako beharrezko material pedagogikoa, galdetegi, kartel, ohar, jakinarazpen edota bestelako informazio eta komunikazio euskarri-elementuak euskaraz jarriko dira (Eskolak barne erabilera plantean zehaztutakoari jarriki); bestetik,

esleipendunak udalararekin dituen harrenanak, ahozkoak (bilerak, adibidez) edota idatzizkoak (memoriak etab.) euskaraz izango dira. Kontratu honen xede diren prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta, kontratuaren zerbitzu hizkuntza nagusia euskara izango da; beraz, erabiltzaileekiko harremana euskara izango da nagusiki, eta euskaraz izatea sustatuko da.

- Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.
- Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez, Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan ezarritakoa betez. Horretarako, Europako Erreferentzia Markoa hartuko da kontuan.

Hala, enpresa esleipendunak izendatzen duen pertsonak edo pertsonek, hala titularrak nola ordezkoak, gai izan beharko du(te) beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egiteko: ahoz zein idatziz.

Horrenbestez, lanpostu hauetan arituko diren langileek hizkuntza maila hauek egiaztatu beharko dituzte:

Formazio saioak gidatuko dituzten langileek:
- C1 mailako euskara egiaztagiria.
  - Jariotasunez adieraziko ditu ideiak eta bere iritziak; zehaztasunez eta eraginkortasunez: ahoz nahiz idatziz.

Enpresaren eta udalaren arteko koordinazio-harremanetarako langileek:
- C1 mailako euskara egiazagiria.
  - Jariotasunez adieraziko ditu ideiak eta bere iritziak; zehaztasunez eta eraginkortasunez: ahoz nahiz idatziz.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea, edo

2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

4. KLAUSULA.- BERDINTASUN ARLOKO BALDINTZA BEREZIAK

Esleipendunak Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen, martxoaren 16ko, 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako printzipioak bete beharko ditu.

Esleipendunak kontratuaren esparruan sortutako eta erabilitako dokumentazioan hizkuntza idatzi eta ikoniko ez-sexista erabiliko da.

Oro har, komunikaziorako erabiltzen diren material guztiek baldintza hauek bete beharko dituzte: hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea; emakumearen edozein irudi diskriminatzaile eta estereotipatu saihestea, eta berdintasun-balioak, presentzia orekatua, erantzukidetasuna, rolen aniztasuna eta genero-aniztasuna eta -identitateak jasotzen dituen irudia sustatzea (Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen, martxoaren 16ko, 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako printzipioari jarraiki).

Gainera, zerbitzuan ez da jokabide sexistarik onartuko, eta langileek hizkuntza sexistarik ez dutela erabiliko zainduko da.

5. KLAUSULA.- ESLEIPENDUNAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK

Jarraitu beharreko hizkuntza irizpideak eta berdintasun arloko baldintza-bereziez gain, esleipendunak betebehar hauek ditu:

- Zerbitzua eskaintzea, baldintza tekniko eta baldintza administratiboen orrien eta esleipendunaren eskaintzaren arabera (azken horiek aurrez Udalak onartu baditu), Udalaren jarraibideak betez.
- Zerbitzua era egokian eskaintzeko beharrezkoak diren baliabide pertsonalak eta bitarteko materialak jartzea.
- Ezarritako koordinazio-bilerak egitea eta eskatutako txostenak eta informazioa landtzea eta aurkeztea Udalari.
- Zerbitzua eskaintzea konfidentzialtasunez eta datu pertsonalak babesteko araubidea betetzea.
- Komunikazioa: Enpresa lizitatzaileek beren eskaintzetan helbide elektroniko bat eta whatsapp-a duen telefono bat adierazi beharko dituzte harremana ahalbidetzeko eta errazteko.
- Solaskidea: Esleipendunak ordezkari bat izendatu beharko du solaskide bakar gisa, une oro, Udalaren Berdintasun eta Euskara eta Hezkuntza sailek izan ditzaketen behar espezifikoei erantzungo diena. Ordezkari horrek, bai eta testuekin lan egiten duen pertsonak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan ahoz zein idatziz komunikatzeko gaitasuna izango dute. Ordezkariaren eginkizunak, besteak beste, honako hauek izango dira: dagokion Udaleko teknikariarekin harremanetan jartzea eta lanak koordinatzea.